



JON ALONSO
IDAZLEA

Nahi dugu hitz eta jolas

Kontatu zidanak ez du publizitaterik nahi; historiako protagonistek ez dakite artikulua hau egin behar du-danik ere. Horrek azalpen aparteko batzuk ematera behartuko nau. Har ezazue pazientzia pixka bat, arren.

Historia euskara etxean jaso duen gazte musikazale batek kontatua da.

Adiskide duela musika taldea eratu duen beste gazte bat –euskara eskolan edo ikastolan ikasitakoa–, Euskal Herriko hiri batekoa –ongi ikasi eta landu duen horietakoa, e?, zehazten du herriko euskaldunak–; taldea lotu dela diskoe-txe batekin diskoa ateratzeko. Euskaraz. Taldekoen ustez, badela “puntx”-a duen kanta bat diskoan, eta kanta haren leloa dela, demagun, X aditz izena + nor-nork aditz laguntzailea + objektu zuzena (“X du Y”, nolabait esan); hain sinesten dutela taldekoek kantuearekin ze diskoaren izenbururako ere egoki ikusi dute-la, pixka bat laburtuta; objektu zuzena kendu dute izenburutik (elipsia eginez), eta izenburua honela gelditu da: X aditz izena + nor-nork aditz laguntzailea (“X du”). Diskoetxeari jakinarazi diote beren erabakia.

Orduan hasi da sesioa. Diskoetxeako arduradunak ezetz, izenburu hori ez dela gramatikalki zuzena. A aditzak, objektu zuzenik gabe badoa, ez duela nor-nork erako laguntzailerik onartzen; nor

erako laguntzailea behar duela, eta hortaz, diskoaren izenburuak behar duela X aditza + nor erako aditz laguntzailea (“X da”). Izenburua horrela aldatuta, kantua- ren erreferentzia galtzen dela, taldekoek; ez duela zentzurik, irrigarria dela.

Hor dabilta taldekoak, esaten dit gazte euskaldun musikazaleak, zoroen pare, entseguak egiteko beharko lituzketen orduak galtzen beren izenburuaren aldeko argudioak bilatzen eta diskoe-txe-ko arduradunarekin telefonoz ez-tabaidatzen. Halakorik! Bidal dezatela diskoetxe-ko arduraduna haizea hartze- ra, sujeritu diot. Diskoa hark ordaindu behar du, ordea, lagunak.

Aste batzuk pasatu dira. Lehengoan denda batean sartu, eta han ikusi dut diskoa. Izenburua: X aditza + nor erako aditz laguntzailea (“X da”).

Gutxienekoa da gramatikaren ikus-puntutik arrazoiak nork duen, noski. Gramatika eta perfekzio formala adieraz-kortasunaren gainetik jartzen dituen hizkuntza ez da sekula erabilgarria izan-go. Batzuek ez dute ezer ulertu 40 ur-tean, eta gaurgero ez dago arrazoirik inoiz deus ulertuko dutela uste izateko.

Aldarri ederrak egiten trebeak gara: euskaraz bizi, sortu, kantatu, jolastu! Behin aukera hori eginez gero, egon trankil; laster zikiratuko dizkizute go-goak. ●



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Buztanikarez beterik

Urteak daramatza inguruan ikus-ten dituen txoriak eta bestelakoak nahasten. Aspaldi etorri ziren hi-riaren bihotzetik kanpoaldera, kale i-zenak Europako erreferentziaz jositako auzo berri horietako batera. Orduan-txe ikasi uste zuen, aita bihurtu ondotik, buztanikarak egiten duen soinu bereiz-garriaren atzean ez zegoela txoriaren zintzurra, haren buztan luze ikaratia bai-zik: isatsa dardaratuz lortzen omen du dezibelio partikularrak askatzea.

Horrela, urteak daramatza inguru-ko buztanikarak eta mikak nahasten. Men-de berriko lehen hamarkadan ikasi uste

zuen kultura berri horren partaide egin zuen semea, hain zuzen ere, krisi ofizia-letik krisi ofizialera joan den bitarteko epean: buztanikarez beterik daude orain nerabearen begiak. Halako batean, koro-nabirusaren bigarren erasoaldia bukatu gabe zegoela, hara non, istripuz –oke-rrak zuzentzeko nahiz zuzenak okertze-ko istripuak espresak izaten dira– ohar-tu den egunero inguruan ikusten dituen txori ugari horiek ez direla buztanika-rak, mikak baizik.

Eta konturatu berri den moduan, be-learen familiakoak dira mikak, eta ka-rranka egiten dute. ●